

# Kontrasteen hiria

NORA ARBELBIDE

Fama txarrekoa da Caracas, Venezuelako hiriburua. Munduko hiririk lanjerosenetik bat da. Gerta daiteke, asteburu batez, 80 bat hiritar erailak izatea. Bertan dago Latinoamerikako txabolen hiri handienetakik bat: Petarek; kasik 2 milioi biztanle —pobreenak— biltzen ditu auzo horrek. Giro politikoa ere beroberoan dago. Herriak duen gatazkaren erritmoak manatzen du hiriburua.

Hori guzia buruaren xokoan atxikirik, hegazkineko atea ireki, eta lehen urratsa egiterakotan, mila metrotik gora jarria den hiri honen hezedurak itotze inpresioa sor dezake. Jautsi, eta itxura kaotiko bat senti daiteke. Avila mendiaren eta bere lagun artean preso da Caracas. Harri gorrizko etxeak bata bestearen gainean metatzen dira. Mendia konkistatzen, ezin aserik. Karrikak saltzaile ttipiek estaltzen dituzte. Disko konpaktu grabatuak 1.500 bolivarretan (euro bat), telebista antenak, gozokiak, bideo kazetak, eritasun sexualen aurkako kremak, denetarik... Zikinkeriak ere karrika inbaditua du.


## Gauaren xarma

Baliteke, Venezuelan, Caracas baino xoko politagoak izatea. El Avila parke nazionaletik hasiz, Karibeko itsasoan kokatu uhar-teetara joanez. Artean, Margarita uhartera edo Chichiribichetara. Hondar zuria, palmerak, eguzkia... Andes mendikatearen hasiera liluragarriak ere Venezuela hautatu du. Segur aski, lehen aldian turista bat Caracasen sartzen denean, estresa eta harrabotsa gainditu behar ditu aurren-aurren, zailtasunez bada ere.

Baina han, gaua erortzen denean, *ranchito*-en argi ttipiak pizten direnean, karriken zikina, kutsadura, fruitu saltzailearen oihiak, autoen harrabotsak, beroa... ahanzi egiten dira hiria gainetik begiratu eta gero. Dena ttipi-ttipia agertzen da. Baita lasaia ere. Eta han, etxetxoan argiak mendietatik gora doaz, izarren pare, izarren bila.

Baina lasaitasun hori ez da fidagarria. Berriz hirira hurbilduz gero, gauak ere erritmoz beterik agertzen dira. Venezuela osoan ezagunak dira bertako diskotekak. Eta hori aski ez balitz bezala, autoaren atzeko atea ireki, han sartua den musika entzute-

**Lehen aldiz iristean, kaotikoa eta lanjerosa iduri lezake Venezuelako hiriburuak, baina bizia eta erakargarria da aldi berean. Finean, herrialde hartako errealitate gatazkatsuaren ispilu da**



Petare auzoa. Gunerik pobreena da, eta 2 milioi lagun bizi dira han.



Bizitza handiko hiria da Caracas. Mugimendua etengabekoa da.

koa piztu, garagardo zenbait erosi, eta karrikak salsa soinu betetzen dituzte hiritarrek. Ez da behin ere isiltzen Caracas. Bizia irakiten ari da etengabe.

Geografikoki bitan zati daiteke. Mendebalde, Petare eta beste hainbat auzo pobreenak dira. Barne alde historikoa: Bolivar plaza, Simon Bolivarren sortetxea, Miraflores lehendakariaren egoitza, Batzarra, Kongresua eta beste hainbeste museo... Ekialdea, aldiz, diruarena. Hango karriken zuzentasunaren eta garbitasunaren ondorioz, hiria bestaldeko anarkia gainetik begiratzen duela ematen du. Baina honek ere txabolen hiria ez du urrun. Bestaldeko maldatik gora, berriz, hasten dira *ranchito*-ak. Horrela da Caracas. Kontrastez betea. Gosea, ohinak eta erailketak dauden bitartean, jendeak biziak eskaintzen duen une bakoitza gozatzen ikasi du, besta eginez, zaldi lehiaketetan parioak egiten eguna pasatuz, edo soilki denbora hartuz. Polizia anitz ere bada mila bisaiatako hirian. Karrika baten izkinan, polizia bat, bere pistola zintzilik, denda batean arropen begiratzeko ikus daiteke. Caracas hiria Polizia, lehendakariaren soldaduak eta Armada han daude zain, edozein momentutan gatazka piztu daitekeen hirian.

## Manifestaldiak

Manifestaldi batek bestea ordezkatzeko du azken hilabete hauetan. Batzuetan, oposizioak; besteetan, Gobernuaren aldekoak. Eta deus berezirik antolatua ez den egun batean ere, beti oihiak entzun daitezke Bolivar plazan. Xoko beroa deitzen dute haiek. Beti jendea bada bildua politikaz mintzatzeko prest. Batzuetan, elkarretaratze bat pizten da, Caracas hiriko auzapez nagusiaren dimisioa galdegiteko, Gobernuak bere politika alda dezan oihukatze... Asteburuetan, haatik, bazterrak lasaigoak dira. Asteburuak pausatzeke eginak dira. Eta igandak heldu, karrikan dagoen lasaitasunak bitxiki estaltzen ditu bazterrak.

## Non, zer

### Non lo egin

Lo egiteko aterperik ez da hiriburuan. Edozein hotel hautatu, eta saria negoziatu behar da aldiro; asteburuetan, batez ere. Sabana Grande da hotel merkeen gunea. Ekialdean, hotel erosoagoak eta garestiagoak aurki daitezke.

### Non jan


Aukera anitz. Karrikan zehar jarriak dauden postuetan zernahi jan daiteke. Hasiz arepatik. Hango taloa da. Ttipiagor eta lodia, haragi edo zernahirekin jan daiteke. Bixkotxak, edari freskarriak, denetarik saltzen dute. Jantegi batean sartu, eta menu berdintsuak eska daitezke. Hemengo prezioen aldean, bada, ez da garesti. 6 euroren truke, bazkari on bat jan daiteke, arno eta guzti. Han, haragi, fruitu edo barazkiek egiazko gustua dute. Sabana Grande aldean, bada jateko. Zentroan ere bai.

### Zer ikusi

Egunez, hiri barnean bada zer bisita, egoitza historiko eta museo artean. Ekialdeko parkean, Venezuelako zuhaitzen edertasuna prezia daiteke. Sartzea ordaindu behar da, gutti bada ere. Eta diru pixka bat gehiago ezarri, eta animalia tropikalak, kolorez estali txoriak, tximinoak baita sugeak ere begira daitezke kaiola hertsitatu. Diskotekei dagokienez, modan dauden guneak arduratzen dira. Hoberena hango gazteei galdegitea da. Normalki, seguruak dira.

### Garraioak

Autobus andana bat dabil bideetan. Batzuetan, minibus hertsia; oro har, denak zaharrak badira ere, beti aitzinatzen dira, normalez. Bestela, taxiak daude; garbiagoak dira, baita garestiagoak ere. Metro berri bat ere badu Caracasek. Laster joateko ona. Modernoa da. Segurua.



Kale saltzaileak.